

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko azaroaren 25a. VIII. urtea. 2.314. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Kalea zein gaua lila koloreko puntuekin beteko dituzte eskualdeko emakumeek

Gaurko Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela eta, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan ekitaldiak antolatu dituzte gaurko eta biharko

Tolosako Udaleko Berdintasun sailak Musika Eskolaren atzeko tren geltokia argiztatu eta margotuko dute, «kalea eta gaua» emakumeena ere badela aldarrikatzeko **2-3**



Tolosako Berdintasun sailak eta herriko hainbat emakume artistek beren ekimena aurkeztu zuten. I. LURKIZU

Gpuntuaren bigarren finalaurrekoa izango da etzi, Tolosan

Jexux Mari Irazuk hartuko du parte, 17:30ean Usabal kiroldegian hasiko den saioan; larrauldarrek «oraingoz lasai» dagoela dio **4**

Ibarrako sokatira taldeak bihar ekingo dio Euskal Herriko Sokatira Txapelketari

Belabieta kiroldegian izango den goma gaineko lehiaketako lehen saioan eskualdeko lau talde ariko dira 17:00etatik aurrera **7**



Euskal Herriko Sokatira Txapelketan, Ibarrako nesken taldea. A. IMAZ

Eskualdeko bost partaide ariko dira Kantu Txapelketako finalean

Tolosaldetik bi bakarlari, bi bikote eta talde batek parte hartuko dute; Tolosa, Alegia eta Lizartzako abeslariak izango dira Donostiako Antzoki Zaharrean, etzi **5**

ESTETIKA ETA KOSMETIKA ZENTROA
KONTSULTA MEDIKU-ESTETIKOA

Maitte

Leitza kalea z/g • Tolosa • 943 67 09 30

Mikropigmentazioaren PROMOZIOA

2011ko abenduaren 20a arte

- Bekainak — % 20eko deskontua
- Ezpainak — % 20eko deskontua
- Begiak — % 20eko deskontua

Bi saiorekin hirugarrengoa doan



Kalea eta gaua emakumeenak ere badirela aldarrikatuko dute, gaur

Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, hainbat jarduera eta protesta antolatu dituzte eskualdean

Tolosan, herriguneko tren geltokia moldatuko dute emakume artistek

Itzea Urkizu

«Emakumeok, oraindik ere, beldurra dugu espazio publikoetan bakarrik ibiltzeko». Hitz hauekin hasi zuen Josebe Iturriozek, Tolosako Udaleko Berdintasun saileko teknikariak, Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira antolatu zuten prentsurrekoa. Urteroko moduan, indarkeria sexista salatuko dute; aurrean, ordea, emakumeek kalean lasai eta askatasunez ibiltzeko eskubidearen aldeko jarduerak burutuko dituzte egun osoan zehar.

Udaleko Parekidetasun zinegotzia den Miren Urkolak, eremu honetan oraindik egiteko gertatzen den bide luzea nabarmendu zuen, eta gobernu talde berriarentzat «berdintasunak erabateko lehentasuna» duela azaldu zuen. Bere ustez, emakumea jaiotzetik mehatxupean bizi da, eta «askatasunean eta autonomian oinarrituriko gizarte parekidea go bat eraiki behar» dela azpimarratu zuen. Bide horretan, erabat salatu zuen emakumeak bizi duen beldurra, eta baita bortxaketak, mehatxuak eta antzekoak ere. Era berean, emakumeek lan munduan bizi duten menpekotasun egoera deuseztatu beharraz ere aritu zen: «Tolosan, lan egin behar da honen guztiaren aurka, eta azpimarratu egin nahi dut emakume talde antolatuek duten garrantzia, gizarte parekideago hau lortze aldera».

Josebe Iturrioz Berdintasun teknikariak, Miren Urkolaren ha-

riari heldu zion, eta Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna «eufemismo hutsa» dela aldarrikatu zuen: «Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna da».

Emakumeek, beldurra dela eta, kalean bakarrik ibiltzeko duen askatasun falta nabarmendu nahi izan zuen Iturriozek: «Honen kausa zein da? Emakume jaiotzea. Eta emakumea ez bazara, ez zara konturatzen errealitate horretaz. Gainera, emakumeok ere naturaltasunez hartzen dugu, batzuetan, beldur hori sentitzea».

Gaur, egunean zehar Tolosako herriguneko tren geltokian emakumeek burutuko dituzten jarduerak, beraz, beldur horrekin lotura zuzena izango dutenak dira. «Kalea eta gaua ere gureak dira, eta hartu egin behar ditugu», aldarrikatu zuen Iturriozek.

Artea, beldurraren aurka

Emakume artisten ordezkari moduan hitz egin zuen Naiara Delgado. Indarkeria sexistaren aurka zenbait jarduera burutuko dituzte gaur, egun osoan zehar.

«Musika eskolaren ondoan dagoen tren geltokia leku itxia eta iluna da, eta bertan, beldurra pasatzen dugu askotan», dio Delgado. Honi aurre egiteko, eta jendea beldur horretaz jabetzeko, hainbat gauza aldatuko dituzte: pasabidea txuriz margotuko dute argiagoa izan dadin, erretrovisorre bat jarriko dute eskilaretan, eta eremu guztia argizatuko dute. 13:00etan hasita, 17:00ak



Ezkerrean, Naiara Delgado artista. Emakume artistak herriguneko tren geltokian ariko dira gaur. I. URKIZU

↓ Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna eskualdean

TOLOSA

- **12:00.** LAB sindikatuaren elkarretaratzea Trianguloa plazan *Ez lan munduan, ez inon, emakumeen aurkako indarkeriari STOP!* lelopean.
- **13:00-17:00.** Herriguneko tren geltokiko eremua moldatuko dute. Bazkaria ere egingo dute.
- **17:00-19:00.** Leku berean, ipuin kontalaria eta clown-a.
- **19:00.** Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxarako Plataformak deitutako elkarretaratzea Trianguloa plazan, indarkeria sexistaren aurka.

IRURA

- **12:00.** Elkarretaratzea udal-etxe aurrean.
- **17:30.** Ludotekako guraso gelan bideo proiektzioa. Ondoren, kafe tertulia.
- **17:30.** Gaztelekuan konposizio tailerra.

VILLABONA

- **20:00.** Elkarretaratzea Berdura plazan.
- **21:00.** Pelikula emanaldia udaletxeko erabilera anitzeko gelan: *Mis tardes con Margarita*.

LEITZA

- **11:15.** *Indarkeria sexistaren aurrean guk/zuk zer egin dezakegu/zu?* lelopean informazio-mahaia eta elkarretaratzea in situ-tuan.
- **12:00.** Informazio mahaia herriko plazan.
- **19:00.** Elkarretaratzea Lope-ner atarian, Bilgune Feministak deituta.
- **Bihar, 10:00-14:00.** Emakumeentzako autodefentsa feminista txokoa; tailerra egingo dute eta jatekoa ere izango da, eskolako gimnasioan.

arte ariko dira lan hauekin, eta tartean bazkaria egingo dute. 17:00etatik 19:00etara bitarte, berri, ipuin kontalaria eta clown-a izango dira, eta hormairudia mar-gotuko dute. Hau amaitutakoan, 19:00etan, Tolosaldeko Emakumeen Mundu Martxarako Plataformak deitutako elkarretaratze-arekin bat egingo dute, Trianguloa plazan.

Azkenik, elkarretaratzea amaitu eta gero, Musika Eskola atzean dagoen tren geltokira itzuliko dira, eta bertan zenbait emakume

artisten proiektzioak eskainiko dituzte.

Naiara Delgado, Tolosako herriguneko tren geltokira bertaratze-ko gonbitea luzatu zien, agerraldian, herritarrei. «Norbaitek zerbaitek berria erantsi nahi badu, egin dezake», azaldu zuen artista gazteak.

Tolosako jarduera eta aldarrikapenez gain, ordea, eskualdean ere indarkeria matxistaren aurkako ekimenak antolatu dituzte Anoetan, Iruran, Villabonan eta Leitza.

8.000 puntu lila

Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Egunarekin bat egiteko, lila koloreko puntua bilatuko da protestaren irudi. Tolosan bakarrik, 8.000 puntu lila banatuko dituzte gaur, herritarrek horrela, atxikimendua erakutsi dezaten.

Eskualdeko gainontzeko herrietan ere banatuko dituzte pegatinak; Anoetako eta Irurako udalek, esaterako, leihoetan puntu lilak eransteko deia luzatu die herritarrei.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Garajea.** Garajea salgai Villabonan: lurrazpiko garaje itxia, 14 m2 eta oso egoera onean dago. Prezio ezin hobea du, 15.000 euro. Interesatuak, deitu 649 424932 telefonora.

BESTELAKOAK

■ **Ostalaritza.** Lapurdi taberna:

Tolosako Rondilla kaleko 33.ean dagoen Lapurdi tabernak ogitartekoak, plater konbinatuak, pintxoak, saldak, krokedoak etabar eskaintzen ditu. Eguzker dago irekita.

LANA

■ **Sukaldaria.** Tolosaldeko jate-txe baterako, asteburuetan lan

egiteko sukaldari euskaldun baten bila gabiltza. 646 703452.

■ **Lan bila.** Emakume euskalduna: esperientziadun eta konfiantzazko emakume euskaldunak, etxeko lanak egin edota edadeko pertsonak nahiz haurrak zaintzeko bere burua eskaintzen du. Autoa ere badauka.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Indarkeria sexistaren aurrean, «borondate politikorik ez dago»

Tolosaldeko Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak neurriak hartzeko eskatu diete instituzioei

I. Garcia

Tolosaldeko Bilgune Feministak instituzioetatik indarkeria sexistaren aurrean hartu diren neurriak kritikatu ditu, eta gai horretan ez dagoela «borondate politikorik» esan du. Nafarroako Legeak eta EAEn sortu berri duten legearen aurreproiektuaren barruko neurriak, «azkenaldian hartu diren neurri solteen antzera, protekzionismoa eta paternalismoa dituzte oinarrian», dio Bilguneak. «Emakumeon biktimizazioan eragiten dute eta ahuldu egiten gaituzte; irakurketa biktimizatzaileak ez ditu eraldaketarako gakoak ematen, emakumeak eta bereziki indarkeria egoera zehatzak bizi izan dituzten emakumeak ahultzen dituelako», salatu du.

Instituzioetatik martxan jarritzen dituzten neurriek indarkeriaren dimentsio guztiak ez dituztela kontuan hartzen gaineratu dute feministek. «Askotan, bikote harremanetan gertatzen diren erasoez soilik arduratzen dira; torturak, jazarpenak, kaleko erasoak, irainak eta abar alde batera utzi», esan dute. «Indarkeria sexistaren eremu guztietan eta adierazpen askotan gertatzen dela ahaizten dute», gaineratu dute.

Instituzioek subjektu pasiboak balira bezala tratatzen dituztela diote, «gure burua defendatzeko gaitasunik ez bagenu bezala, zer nahi dugun jakingo ez bagenu bezala». Instituzioek «salbatzaile papera» egokitzen diotela euren buruei gaineratu dute. Ez direla subjektu pasiboak eta ez dutela «diskurtso paternalistik» nahi

esan dute. «Ahotsa badugu, eta zer nahi dugun ere, jakin badakigu! Gure ustetan emakumeon hitzak, egun daukana baino indar handiagoa hartu beharko luke, subjektu politikoetan bilakatzeko prozesuaren lehen pausoa baita», zehaztu dute Bilguneak.

Emakume izatearen «arriskuez, eguneroko beldur eta erasoez» oso kontziente direla diote. Autodefentsan sinesten dutela esan dute, «gure burua defendatzeko dugun gaitasunean, eta ez dugu salbatzaileen zain egoteko asmorik». Horregatik, bere jarduna «Autodefentsa Feminista» oinarritzen dutela esan dute: «Emakumeon arteko elkartzasuna eta antolakuntza abiapuntu izanda, autodefentsa feministak bide lagun ditu: indarra, babesa, autoestimua eta konfiantza».

Parekidetasuna bermatzea

LAB sindikatutik ere instituzioek neurriak ez hartzea salatu dute. Emakumeen kontrako indarkeria patriarka-sistemaren ondorioa dela diote LAB sindikatutik, «sistema honek gizon eta emakumeon artean ezartzen dituen botere harremanetan oinarritzen baita». Lan eremuari dagokionean, patriarka-sistemak sexuaren araberako lan banaketa ezartzen duela dio, «honek emakumeon prekarietatea areagotu eta indarkeria sexistaren iraurarazten duela, sexu jazarpena izanik adierazgarririk larriena».

Emakumeen kontrako indarkeria orori aurre egin nahi bada, «ezinbestez prebentzioaz hitz egin behar da», esan du. «Azken finean jendartearen ardura ere bada giza honetako gertakizunak berriz ere ez ematea». Horren kontzientzia izanik, «LAB sindikatutik aspalditik aldarrikatzen dugu lan munduan parekidetasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak aplikatzea enprestan».

Betagarri eta Bizardunak, asteburuan Bonberenean

I. Garcia Tolosa

Bi kontzertu erakargarri entzun ahal izango dira asteburuan Tolosaldeko Bonberenean. Gaur, Betagarriren txanda izango da, eta bihar, Bizardunak eta Caustic Roll Dave taldeena. Bi saioak 22:30ean hasiko dira eta bakoitzean sarrerak zortzi euro balioko du.

Betagarrik bere ska doinuak ja-

rriko ditu gorputzak mugitzeko, eta gau eder eta bizi bat aurkezteko asmoz. Beraien azkeneko diskoren biraren barnean sartuko da kontzertua.

Bizardunak talde nafarra parranda eta giro ona jartzeko asmoz joango da Bonberenean. Emanaldian, taldeak beraien azken diskoko kantuek eskainiko dituzte.

Txuletaren Festarako izena emateko aukera zabalik dago

Erredakzioa Tolosa

Abenduaren 5etik 8ra Txuletaren Festa egingo da Zerkausian. Lehenengo egunean euskal label-dun txekor errea jateko aukera izango da, 20 euro ordainduz. Bestalde, urteroko menua abenduaren 6ko bazkarian, 7ko afarian eta 8ko bazkaria egongo da, 45 euroren truke. 8ko bazkarian ez dago lekuri. Besteetan izena emateko Tolosaldea Tour-era deitu behar du, 943 69 74 13 zenbakira.

Carlos Peñak Sella ibaia zeharkatuko du beste behin

Erredakzioa Tolosa

Carlos Peña igerilari tolosarrak Sella ibaia zeharkatuko du hamaikagarren aldiz. Bihar da erronka, eta abenduaren 17an eta 18an Castelldefelsen (Katalunia) egingo duen elkartzasun proba-ko prestatzeko balioko dio. Peña 24 orduz ariko da igerian La Marató fundazioak antolatzen duen elkartzasun kanpainaren barruan.

Laskorain ikastolako abesbatza, Kataluniara

Erredakzioa Tolosa

Asteburu honetan Laskorain Ikastolako abesbatza Kataluniara joango da, Begues herriko institutuko abesbatzarekin elkartrukea osatzera. Naiara Mintegiak zuzentzen duen abesbatza 53 partaide izango dira, LH 5 eta DBH 2 mailen artekoak. Ostiral arratsaldean abiatuko dira eta larunbat arratsaldean kontzertua eskainiko dute Begueseko eskolako abesbatzarekin batera.

Santa Mariako musika kaperak kontzertua emango du bihar

Erredakzioa Tolosa

Aurreko asteartean Xexili Deuna zela eta, Santa Mariako musika kaperak tolosar guztiak gonbidatu ditu bihar, 19:00etan, parrokiaren bertan ospatuko den mezan parte hartzera. Santa Mariako kaperan 90 kide daude, Luis Orduñaren zuzendaritzapean, eta organo-joleak, orkestrak eta koruak osatzen dute.

→ Laburrak

Txotxongilo emanaldia bihar, kultur etxean

IBARRA › Bihar, 11:30ean, Ibarako Benito Izagirre kultur etxean, Tolosaldeko Nazioarteko Txotxongilo jaialdian esku hartzen duen La Gaviota taldeak *Pascual Patrocho eta bere panpina* txotxongilo emanaldia eskainiko du.

Samaniegoren pedagogi tailerraren bigarren saioa

TOLOSA › Samaniego ikastetxean, *Erantzukizuna sustatuz seme-alabengan* pedagogi tailerra dela eta, hilaren 28an bigarren hitzaldia eskainiko da Haur Hezkuntzako eraikinean, 17:30ean. Familia, irakasle, hezitzaile zein begiraleentzat zuzendua dago eta bertan autoestimua, ardurak, etxerako lanak, harremanak... landuko dira. Hirugarren hitzordua abenduaren 12an izango da. Ana Elosegi Uranga psikologo sistemikoak gidatzen du tailerra.

Bederatziurrena ospatzen ari dira lurreamendin

TOLOSA › Lurreamendi egoitzan Milagrosaren bederatziurrena ospatzen ari dira egunotan. Hilaren 27ra arte iraungo dute meza ospakizunek. Goizetan, jai egunetan 09:00etan, eta lanegunetan 08:00etan dira mezak; arratsaldetan, egunero 16:30ean dira. Mezaren aurretik errosarioa errezatuko dute.

Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera irekia

TOLOSA › Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera irekia egingo du datorren asteartean, hilak 29, Corpus Christi parrokiako lokaletan. 20:00etan izango da bilera eta bertan alkoholaren eta bere ondorioen kalteak eta errekuperazioaren inguruan hitz egingo dute. Bilerara alkoholak kalteturikoak eta euren senideak gonbidatzen dituzte, eta baita argibide gehiago nahi dutenel ere.

CITROËN C4 BERRIA
POSITIVE POWER



Jarrai gaitzazu:   

PLAN RENOVE + CITROËN
HILABETE HONETAN
JASO ITZAZU

3.000 €
ZURE IBILGAILU ZAHARRARENGATIK.*



CITROËN

IROVI, S.A. KONZESIONARIO OFIZIALA CITROËN. INDUSTRIGUNEAN Z/G. • TEL.: 943 65 18 42. ANOETA / TOLOSA

Usabalen jokatu da Gpuntuako bigarren finalaurrekoa, etzi

Sei bertsolariaren artean eskualdeko ordezkari bat egongo da; Jexux Mari Irazu larrauldarra

Asier Imaz Tolosa

Bertsolari mundua Tolosara begira egongo da igande honetan, bertan jokatu da baita Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren biga-

rren finalaurrekoa. Saioan puntu gehien biltzen dituenak, zuzenean finalerako txartela lortuko du. Besteek, hirugarren finalaurrekoaren zain gelditu beharko dute, puntuen arabera aurrera egiten duten ala ez jakiteko.

Usabal kiroldegian jokatu den kanporaketan, sei bertsolari egongo dira, eta horietatik bat eskualdekoa izango da: Jexux Mari Irazu larrauldarra. Tolosako Finalaurrekoa 17:30ean hasiko da, eta sarrerak aldeztu aurretik erosi

nahi dituenak, horretarako aukera www.gpuntua.com helbidean izango du.

Jexux Mari Irazurekin batera, ondorengo bost bertsolari ariko dira: Beñat Lizaso, Aitor Sarriegi, Iñigo Izagirre, Unai Agirre eta Nerea Elustondo.

Bestalde, Txolarre irratia eta Info7 irratia Usabal kiroldegian egongo dira. Info7k saioa zuzenean eskainiko du, eta Txolarrek, hurrengo asteazkenean, 17.00etatik 18.00etarako tartean.

Jexux Mari Irazu • Bertsolaria

«Finalera iristea da nire helburua eta ilusioa»

A. Imaz Larraul

Finalaurreko saiora indartsu iritsi da Jexux Mari Irazu (1972, Larraul). Gipuzkoako Txapelketa final laurdenetan hasi zen berarentzat, eta Oñatiko saio hartan, puntu gehien lortu zituen bertsolaria izan zen.

Final laurdenak pasa zenituen bezala pasata, nola aurkitzen zara orain? Oraingo lasai. Ardura handiena agian aurreko saioan nuen. Euskal Herriko Txapelketarako txartelak orduan erabakitzen ziren, eta kanpoan geldituz gero, hemendik bi urtetara egingo den txapelketa horri agur esan beharko nion. Nire adina ikusita, agian txapelketen amaiera izango zen. Alde horretatik, beraz, pixka bat lasaia aurkitzen naiz; gogoarekin eta finalera pasatzeko ilusioarekin.

Txapelketa honizein helbururekin ekin zenien?

Gipuzkoako Txapelketan parte hartu dudana guztietan finalera iritsi naiz. Euskal Herrikoako



HITZA

keta bat. Ikusiko da nola ateratzen den.

Zer iruditzen zaizu Usabal? Kantatzeko leku oso polita iruditzen zait. Eajendeak erantzun eta giro polita egoten den.

↓ Bakarka

- **Nerea Elustondo:** «Aurtengo ezustekoa izan dena eta izan litekeena».
- **Beñat Lizaso:** «Aitaren semea».
- **Unai Agirre:** «Lagun handi bat eta finalerako hautagai nahiko segurua».
- **Aitor Sarriegi:** «Txapelketa hautagaietako bat eta azeleradorea ondo zapaltzen dakiena».
- **Iñigo Izagirre:** «Jenio puntu bat duena, eta agian oraindik dena erakutsi ez duena».
- **Jexux Mari Irazu:** «Ilgandean besteek bezalaxe ahal duena egingo duena».

→ Laburrak

Kirolariei omenaldia egiteko zerrenda osatzen

ZIZURKIL > Abenduaren 16an, herriko kirolariei omenaldia egingo diete Kirol Astearen barruan. Zizurkilgo Kirol batzordea kirolarien zerrenda osatzen ari da, eta herritarrek euren proposamenak egiteko aukera dute. Horretarako, udaletxera joan edo 943 69 24 95 telefono zenbakira deitu beharko da.

Aiztondoko bigarren kontsumo taldea sortuz

EKONOMIA > Aiztondo bailaran bigarren kontsumo taldea osatzeko bilera informatiboa egingo dute hilaren 29an, asteartean. Baserritarrak ekoiztutako produktuak bitartekariarik gabe etxeratzeko modua ematen dute kontsumo taldeek. Bilera Atxulondo elkartearen egingo dute, 19:00etan. Harremanerako bilbao.tgiuz@gmail.com helbidera idatzi behar da.

KZgunean Interneti buruzko ikastaroak

ADUNA > KZgunean Internet ikastaroa antolatuko dute. Orde-nagailua zer den, nabigatzen, posta elektronikoa eta gauza gehiago ikasteko aukera egongo da bertan. Izena emateko Adunako udaletxera joan edo 943 69 25 71 telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroaren ordu-tegiak norberak aukeratu ahal izango ditu. Goizetarako bi aukerak hauek dira: 09:00etatik 11:00etara edo 11:00etatik 13:00etara. Arratsaldean beste horrenbeste aukera egongo da: 16:00etatik 18:00etara, edo 18:00etatik 20:00etara.

Esne Beltzaren filma ikusteko aukera, Gurean

AMASA-VILLABONA > Esne Beltza musika taldeak filma grabatu du. *Esne Beltzako bandidoak*, *CIAREN atzaparretatik ihesi*-ren aurre estreinaldia Gurea antzokian izango da, etzi, 22:30ean, 3 euroren truke.

Auzolanerako deia luzatu die udalak herritarrei

ALKIZA > Udalak auzolana antolatu du herriko frontoian. Helburu horrekin, herritar guz-tiei deialdia luzatu die, bihar, hilaren 26an, frontoia txukuntzera agertzeko. Auzolaneraren eserlekuak eta atzealdea konpondu nahi dute. Hitzordua 09:30ean jarri dute, eta herritar guztiak gonbidatu nahi izan dituzte auzolanera.

Aurrekontu parte hartzaileen inguruko bilera

ANOETA > 2012 urterako aurrekontu parte hartzaileak ahalik eta modu gardenenean egiteko bilera antolatu du Anoetako Udalak, bihar, hilaren 26an. Udaletxeko bilkura aretoaren egingo dute lehen informazio bilera, eta 11:00etan hasiko da. Bertan, herritarren ideiak biltzeaz gain, udal ordezkariak euren asmoak azalduko dizkie anoetarrei.

Ohiko osoko bilkura abenduaren leian

AMASA-VILLABONA > Udalak jakinarazi duenez, abenduaren 1ean, ostegunean, ohiko osoko bilkura egingo dute. 20:00etan elkartuko dira udaletxeko batzar aretoan, besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko: Udalbatzaren osoko bilkuren maiztasuna aldatzeko proposamena; euskal presoaren eskubideei buruzko mozioa eta Euskararen nazioarteko egunari buruzko mozioa.

Kontakt ikastaroa Asvinenean, etzi


ADUNA > Asvinenean Kontakt inprobisazio ikastaroa antolatu du, Sophie Dubsen eskutik. Ikastaroa hilaren 27an, etzi, izango da Adunako lokalean. Bi orduko ikastaroa izango da, 10:00etatik 14:00etarako. Parte hartu nahi duenak 35 euro ordaindu beharko ditu, eta bazkideek 30 euro. Informazio gehiago nahi duenak, 628 75 75 33 telefono zenbakira deitu beharko du, edo asvineneas-kola@gmail.com helbide elektronikora idatzi.



Amasa-Villabonako Udala

Azaroak 25: Indarkeria Sexistaren Aurkako Eguna

20:00etan Berdura Plazan ELKARRETARATZEA



Irudia Albiztur



ZORTZI ALKATE HIZKETAN

Atzo Albizturgo Herri Eskolako haurrak, zazpi alkate ohiekien eta gaur egungoarekin elkartu ziren udaletxean. Herri eskolaz hizketan aritu ziren, eta alkateek, ikasleek egindako galderei erantzun zieten. Garai ezberdinetako kontuak entzun zituzten ikasleek, gurasoek eta irakasleek. Eskolaren beharraz, obrez, harremanez, ikasle kopuruaz, jangelaz, hitz egin zuten. Guztia grabatu egin zuten. E. MAIZ

Eskualdeko abeslariak finalerako prest daude

Igandean Gipuzkoako XV. Euskal Kantu Txapelketako finala jokatu da Donostiako Antzoki Zaharrean

E. Maiz

Igandean jokatu da Gipuzkoako XV. Kantu Txapelketako finala Donostiako Antzoki Zaharrean. 18:00etan hasiko da, eta bertan izango dira eskualdeko bi bakar-lari, bi bikote eta talde bat.

Bakarlarien artean, Mateo Zubeldia lizartzarra eta Aitziber Guiu tolosarra izango dira. Lehenak, *Altzateko jaun* abestuko du eta bigarrenak, *Atzera ez begiratu* abesti berria. Bikoteen kasuan, Alegiako Nora Salbador eta Marta Olea, *Izana, dena, geroa* abestiarekin, eta Tolosako Maria Asenjo eta Maialen Lopez, *Zuretzako hitz ederrak* abestiarekin taularatuko dira. Alegiako Keiran taldea ere taula gainean izango da, eta *Arnasten* abesti berria eskainiko dute. Sariak banatu aurretik, Lain taldea izango da.

→ Laburrak

Mus txapelketa eta gaztaina erreak, bihar

BEDAIO › Artubi elkarteak, urteroko ohiturari jarraituz, mus txapelketa antolatu du, biharko. 16:00etan emango zaio hasiera, eta ondoren, sasoiak agintzen duen bezala, afariarekin batera gaztaina erreak izango dira. Afaria 21:00etan izango da. Antolatzaileek guztiak gonbidatu nahi dituzte bi ekitaldietan parte hartzera.

Txintxarri Txikikoak, gazte abesbatzen tailerrean

ALEGIA › Txintxarri Txikiko abeslari zaharrenak gazte abesbatzen tailerrean izango dira asteburu honetan. Zarauzko aterpetxean elkartuko dira Gipuzkoako koruetan abesten duten kantari gazteak. Alegiatik, sei abeslari joango dira Idoia Iraola zuzendariarekin batera. Guztira 100 abeslari elkartuko dira, eta igandean kontzertua eskainiko dute Zarautzen.

Gpunterako sarrerak eta autobusa jarri dituzte

ALEGIA › Gipuzkoako Bertsolari txapelketako finalerako sarrerak salgai daude Alegiako Jubilatuen tabernan. Herriko bertso eskolak autobusa antolatu du, eta bertan eros daitezke joan-etorriko txartelak. Heltzeko 10 euro, eta 16 urtez azpikoek 5 euro ordaindu beharko dute autobusa. Datorren astea izango da izena emateko azkena.

Nagusien finalak eta jubenilen finalerdiak, jokoan

Eskuz binakako partidak dira; finalak ikaztegieta eta finalerdiak Bidegoianen jokatu dituzte, gaur

Eneritz Maiz

Asteburu izaten dira pilota partidak, baina gaurko partidek interres handiagoa piztuko dute. Bi partida garrantzitsu ikaztegieta jokatu dira. Kasu honetan, bi final daude jokoan. Beñat Urretabizkaia ikaztegieta eta Arkaitz Esnaola txaramarrak osatutako bikoteak, Rodriguez eta Intxausti zumarragarren aurka jokatu beharko dute. Bigarren partidan, Usurbilgo bikotea, Azpeitikoaren aurka ariko da. Partida hauen aurretik ordea, 19:30ean hasiko da emakumeen gomazko

paletako jubenilen partida. Intxurre, Su-Berriren aurka lehiatuko da.

Bidegoianen, 19:00etatik aurrera lau partida izango dira. Kadeten bi partiden ostean, jubenilen lehen mailako bi partida izango dira, eta finalerako txartela izango dute jokoan. Alde batetik, Aurrera Saiaz Zazpi Iturriren aurka, eta bestetik, Aurrera Saiaz Oiarperen kontra ariko dira.

Alegian 19:00etan hasiko dira gaurko hiru partidak jubenil eta nagusien mailakoak. Zizurkil 18:30etik aurrera lau partida jokatu dituzte, infantilek.

Amezketan ere pilota izango da, eta Zazpi Iturrikoek hiru partida jokatu dituzte 20:00etatik aurrera. Bi partida infantilek eta bat kadeteek jokatu dute.

Bihar arratsaldean, Tolosako, Bidegoianeko eta Alzoko frontoietan izango dira partidak.



Esnaolak eta Urretabizkaia jokatu dute nagusien finala. HITZA



harpidedun izateak badu saria

irabazleak

1 Sausta Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria edo afaria

• Esteban Mujika (Ikaztegieta)

Eskaera egiteko, bi hilabete: Belate pasealekua, 7-8 behe Tolosa • Tel.: 943-65 54 53 www.sauستا.com

2 Mikel Izagirre
Ile mozketa bat

• ENHE (Tolosa)

Eskaera egiteko, bi hilabete: Gorosabel, 27 behe Tolosa • Tel.: 943-67 52 49 http://www.lasonet.com/mikel/



3 G puntua

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerdirako bi sarrera pare

• Agustin Amiano (Altzo)
• Santutxu Taberna (Albiztur)

Azaroak 27, Igandea 17:30ean

Tolosako Usabal Kiroldegian



Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan.

4 Donostiako Aquariuma

Hiru laguntzako bina sarrera

• Begoña Aristi (Tolosa)
• Bittorio Lizarraga (Leitza)
• Ametza Elola (Irura)

www.aquariumss.com

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilabetez.

5 Lagu Aro GBC
Sarrera pare

Azaroak 27 • Igandea 18:00etan Donostiako Ilunben

LAGU ARO GBC
Lucentum Alicante
saskibaloia partida

• Egarrri Taberna (Zizurkil)

Sarrerak eskuratzeko HITZAKO bulegotik pasa.

harpidedunen
TXOKOA hitza



'Errautsak' antzezlaneko une bat: Hodeiren hilxutxaren ondoan bere lagunak. WWW.ERRAUTSAK.COM

Villabonako Gurea antzokian, gaur, 'Errautsak' antzezlan ikusteko aukera egongo da 22:30ean; urtebeteko ibilbidearen ondoren, azkenaurreko emanaldia gure eskualdean eskainiko dute.

'Errautsak' agurtzeko unea

Asier Imaz Amasa-Villabona

Hodei hil da. Gaztaroko lagunak, urteetan elkarren berririk izan gabe egon ondotik, Hodeiren hiletarako bilduko dira. Saminak eta berriz elkartzea emozioak eraginda, Hodeiren azken agurra garai bateko festa basati bihurtuko da. Iraganeko eta oraineko egiak, gezurrak eta

kontraesanak azaleratuko dituen gau eroa. Noizbait zatea amestu eta sekula izan ez zirenaren errautsak baino ez dira geratzen, ordea.

Hitz hauekin laburbiltzen dute Unai Iturriagak eta Igor Elortzak eurek idatzi duten *Errautsak* antzezlan.

Bi bertsolari ezagunek, ordea, ez zuten proiektu hau sortu; abian zen trenera igotzea izan zen

euren meritua. Meritua, *Errautsak* obrak izugarriko arrakasta lortu baitu Euskal Herri luze eta zabalean. Alde batetik, XI. Donostia Antzerki Saria eta Azpeitiko Txalo Saria irabazi zituzten, eta bestetik, herritarren ahoz-ahokora iristea lortu zuten.

Ander Lipus markinarra antzezlaneko aktoreetako bat da, eta lortzen artean, Azpeitiko Txalo Ikuslearen Saria eta herri-tarren artean izan duen arrera azpimarratu ditu: «Egia esan ez naiz oso sarizalea, hala eta guztiz ere ekonomikoki asko laguntzen dute. Azpeitiko berezia izan zen, ikusleen saria baitzen. Bestalde, garrantzitsua, ikusleen erantzuna izan dela esango nuke. Urtebete han eta hemen ibili gara, eta antzokiak beteta egon dira. Hori izan da politena».

Kritikoen loreak, ikusleen txaloak, sariak... zaila izango zen hau imajinatzen duela lau urte. Orduan erabaki zuten Bizkaia, Gipuzkoa eta Iparraldeko hiru antzerki taldek elkarrekin proiektu honetan hastea. Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu Panpin laborategiko kideek, aurrez josia zuten harremana saretea erabaki zuten. Hasi eta egin. Ideia nahiko garatua zuten buruan, baina idazteak falta zitzairen. Horretarako, Elortza & Iturriaga sormen faktoriara joatea erabaki zuten, eta hauek, ukitzen duten gutzia urre bilakatzen dutenez, antzezlan honetako altxorretako bat sortu zuten: elkarrizketa naturaleraz osatutako gidoi freskoa.

Hiru antzerki talde elkartzean, hiru lurraldetako antzezleak aur-

kitu ziren oholta gainean, bakoitza bere euskararekin. Lipusek garrantzi berezia ematen aberastan horri: «Antzezlanean hainbat euskalki erabiltzen ditugu; bakoitzak bereri Xiberuko euskara, Lapurdikoa,... gehitzen dizkiogu. Horrek oholta asko zabaltzen du, eta Euskal Herrian zehar ibili garenez, ikuslearekiko hurbiltasun berezi bat sortzen du».

«Pertsonaiak, ezgai hutsak»

Errautsak antzezlanean sei aktorek hartzen dute parte. Ander Lipusen hitzetan, antzeztan dituzten pertsonaiak «inutil edo ezgai hutsak dira; karrikatura batzuk». Pertsonaia batez izaera muturreraino eramatean sortzen dira karrikaturak, eta Lipusen iritziz, «euren isla denok sentitzen dugu barruan».

70eko hamarkadan jaiotako lagun koadrila, nahi eta ezinaren paradigma bilakatu dira: izana, izatea nahi zutena eta direnaren arteko gatazka agerian utziz. Lipusen ustez, «geure buruaz barre egitea garrantzitsua da, eta horretan badugu zer ikasia». Antzezlan honek, beraz, ikuslearentzat badu ariketa moduko bat. «Nire pertsonaia adibidez Zigor da. Euskaldun zikiratua eta analfabeto sentimentala, tripa ere badauka. Bertsuak ez zaizkiola gustatzen esaten du, bertsolariak gorroto dituela. Eta azkenean, bertsotan berak amaitzen du», dio Lipusek.

Ukatzen duen horretan bilakatez; iraganeko koadrilarekin elkartzea, lagunaren errautsak agurtzerakoan... tragedia honek baditu bere ezusteak harriga-

↓ Fitxa artistikoa

■ **Aktoreak:** Ander Lipus (Zigor); Manex Fuchs (Erramun); Ximun Fuchs (Kaiet); Miren Gaztañaga (Eider); Ainara Gurruixaga (Pili) eta Urko Redondo (Fermin).

■ **Taula zuzendaritza:** Ximun Fuchs.

■ **Gidoia:** Igor Elortza eta Unai Iturriaga.

■ **ekoizleak:** Artedrama, Le Petit Theatre de Pain eta Dejabu Panpin laborategia.

■ **Eszenografia:** Jose Pablo Arriaga.

■ **Argiztapen diseinua:** Josep Duhau.

↓ Emanaldia

AZAROAK 25, GAUR

■ **Non:** Villabonako Gurea antzokian.

■ **Noiz:** 22:30ean.

■ **Sarreak:** 09:30etik

13:00etara udaleko Kultura saillean, 8 eurotan. Emanaldiaren aurretik, leihatilan, 10 eurotan. Gazte txartelarekin 8 eurotan.

riak. Alabaina, antzezleek eman beharrean, eurek hartutakoak izan direla dio markinarrek: «Ez genuen inondik ere espero jendek horrenbeste barre egiterik; ezusteko ederra izan da. *Errautsak*, azken finean, tragedia batean oinarritua dago».

Azkenaurreko emanaldia

Errautsak antzezlanaren urtebete inguruko ibilbidea asteburu honetan amaitu da. Gaur, Villabonako Gurea antzokian, 22:30ean, azkenaurreko emanaldia eskainiko dute antzezleek, eta bihar, Elgetan, azkena.

Horrelakoetan ohikoa da atzera begira jartzea, eta Lipus jendearen erantzunarekin gelditzen da: «Guregatik izan balitz, jarraituko genuen, baina hiru herrialde ezberdinetakoak izanik, ez da erraza. Emanaldi gehiago egiteko aukera izan bagenuen, eskari gehiago jaso baititugu, baina hemen gelditzea erabaki dugu».

Aurrera begira, «proiektu xumeago bat» prestatzen ari direla azaldu du markinarrek, «antzezle gutxiagokoa».

Ez da makala krisi garaian *Errautsak*-ek lortu duena: antzokiak bete, antzerkia berpiztu herri-tarren artean... hitz batean, euskal antzerkiaren merkatua sortzen jarraitu. Errautsen arte-tik sortutako hausnarketekin jarraitzeko, eta hasi bezala bukatzeko, Iturriaga eta Elortza: «XXI. mendea da, eta XX. eneko ametsen errautsak gara. Oraindik orain, errautsotan noizbait surik izan zela sinestarazi nahi diegu gure buruei. Ba ote?».





Euskal Herriko Txapelketako saio batean, mutilen taldea, iragan urteko abenduan. ASIERIMAZ

Ibarrako sokatira taldeko neskek eta mutilek bihar ekingo diote Euskal Herriko Goma Gaineko Sokatira Txapelketari; etxean izango da lehen jardunaldia, 17:00etatik aurrera, Belabietan.

Tiralari indartsuenen pare

Iñigo Terradillos Ibarra

Hogeita hamar lagun inguru biltzen dira Ibarran sokatiraren bueltan. Zaletasun moduan hasi ziren, eta pixkanaka, egonkortu, bere lekua egin, eta egun maila handienekoekin tiraldiak egiteko gai dira Ibarrako sokatira taldeko kideak. Hori erakutsiko dute bihar, Ibarran bertan hasiko den Euskal Herriko 4x4 Goma Gaineko Sokatira Txapelketan.

Emakumezko (260 kilo) eta gizonezkoen (300 kilo) lehia ikusteko aukera izango da, hortaz, Ibarrako kiroldegian. Bietan ere, Ibarra bi talderekin lehiatuko da, eta aurkari oso gogorak izango dituzten arren, emaitza onak lortzea espero dute. «Euskal Herriko zazpi lurraldeetako taldeek hartuko dute parte, guztiak ere maila oso handikoak, eta Ibarra ez da atzean geratzen, onenekin aritzeko maila baitugu», dio Eugenio

Lopetegi sokatira taldeko sustatzaileak.

Gizonezkoentzat 300 kilokoak hasiko da bihar, baina 320 kilokoak bukatu berri dute. Bertan ere parte hartu dute ibartarrek, baina ez dituzte «esperotako emaitzak» lortu. «Konfiantza gehiegirekin» hartu dute parte kategoria honetan, eta azkenean ez dira finalera sokatira taldeko kideak. «Jaz txapelkun izan zen Ibarra, eta horregatik, aurten talde batekin ez baino bi talderekin lehiatu nahi izan du, baina bi taldetan banatu direnez, ez dituzte biak behar adina indartsuak sortu, eta ondorioz, emaitzak ez dira esperotakoak izan», azaldu du Lopetegik.

Bihar hasiko den txapelketara, ordea, bina talde indartsuak dira. 16-18 talde lehiatuko dira mutiletan, eta nesketan, berriz, 6-7 talde. Ibarrako lehen jardunaldiaren ondoren, bigarrena Berriozarren (Nafarroa) izango da, abenduaren 4an. Bietan lehenengo sei postuetan geratzen direnek

jokatuko dute finala abenduaren 17an, Arrankudiagan (Bizkaia).

«Pasa den urteko emaitza onak mantentzea espero dugu, eta hobe zeko helburuarekin jokatuko dugu», azaldu du nesken taldeko Miriam Elorzak. Iaz, mutiletan, 300 kilokoan txapelkun geratu ziren bi taldeak, eta 8x8an, pisurik txikienean, bigarren. Neskak, berriz, hirugarren postuan sailkatu ziren.

8x8 eta Munduko Txapelketa
4x4 txapelketaren ostean iritsiko da 8x8 txapelketa urtarrilaren 7an, otsailaren 18an amaitzeko. Kasu honetan, mutilezkoetan, 680, 640, 600 eta 560 kilotan lehiatuko dira. Talde bana izango dute neskek nahiz mutilek. Neskek 540 eta 500 pisukoan hartuko dute parte, eta mutilak lau pisutan arituko dira.

Txapelketa hau amaitu bezain pronto Munduko Txapelketan parte hartzea joango dira, Eskoziara. Bertan pisu guztietan lehia-

tzeo asmoa dute. Txapelketa horretan, era mixtoan parte hartzeko aukera ere bada, hau da, mutilak eta neskek elkarrekin taldea osatzen dutena, eta horretan ere ariko dira, munduko punta puntako taldeen aurka.

Txapelketa honetan talde edo klub bezala hartzen dute parte ibartarrek. «Herrialde bezala aritzeko aukera dago, baina gure kasuan, Espainia ordezkatuz izango litzateke, Euskal Herriko talde bezala ezin baitugu parte hartu, beraz, bai guk bai eta Euskal Herriko sokatira talderik gehienek lurralde bezala ez lehiatzea erabaki dugu», azaldu du Eugenio Lopetegik.

Indarra hartzen

Aurtengo denboraldian, nesken eta mutilen artean, 30 lagun ari dira Ibarrako sokatira taldean. 16 urtetik 40 urte bitartekoak dira tiralariak, gehienak Tolosaldekoak, baina badira gure eskualdeaz kanpotik etortzen direnak ere.

«Urtetik urtera jendearen kopurua bezala, maila ere igotzen ari da taldean», dio Ainhoa Otañoren nesken taldeko tiralariak.

Egoki prestatzearen ondorioz izango da hori. Astean bitan entrenatzen dute sokarekin, eta fisiko norberak egiten du. Bestalde, Eugenio Lopetegirekin batera Ibarrako taldearen sustatzaile izan zen Lander Otermin aritzen da nesken taldea entrenatzen, eta mutilena, berriz, Anjel San Roman.

Taldean dagoen giro polita nabarmentzen dute Lopetegik, Otañok eta Elorzak. «Oso ondo konpontzen gara elkarren artean, gustura aritzen gara, eta hori nabari da emaitzetan». Kirolaren gogortasunaz galdetuta, beste kirolen modukoa dela diote: «Jendeak uste du oso kirol gogorra dela, baina ez da hainbesteko; hasieran, agian, eskuak-eta egin

Urtetik urtera taldea handituz doa; bertako giroa nabarmentzen dute taldekideek

arte kostatu egiten da pixka bat, baina kirol guztietan gertatzen den bezala, martxa hartu arte izaten da».

Elorzaren kasuan, apustu bat tarteko sartu zen sokatiraren munduan. «Duela hiru urte, Ibarrako eta Tolosaldeko nesken arteko sokatira lehia izan genuen, eta giro polita sortu zela ikustean, egungo entrenatzailea den Lander Oterminek proposatu zigun taldea osatu eta txapelketan parte hartzearena».

Ainhoa Otañoren kasua, berriz, bestelakoa da: «Spining egitera joaten nintzen Ibarrako kiroldegira, eta sokatira taldekoak nola entrenatzen zuten ikusten geratzen nintzen; probatzeko esan zidaten, eta animatu egin nintzen».

Euren lorpenetarako ere animoak beharrezkoak dituzte, eta horregatik, biharko saiora animatzen dituzte herritarrak, «ikusizun polita ikusi eta Ibarrako taldeari babesa ematera». 17:00etan izango da hitzordua, Belabietan kiroldegian.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



MARTXELI MUJIKA OIARBIDE

andrea
(Pedro Zubillagaren alarguna)
- Goian bego -

Amona Martxeli gertuko eta pozgarri zein goxo, zenbat irri bertoak kantari eskerrikasko eman diguzun maitasun guztiagatik

Zure bilobak: Arantza eta Jesus, Amaia, Koldo, Julen, Naiara eta Gorka, Asier eta Leire, Kepa, Iñaki eta Sara, Ander eta Itsaso.
Zure birlobak: Maialen eta Uxue.

Tolosan, 2011ko azaroaren 25a



14°
11°

GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	15°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 6510 45.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosa.** Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta LAB sindikatuak elkarretaratzea egingo du gaur, 12:00etan Trianguloan. Era berean, Berdintasun sailak hainbat ekitaldi burutuko ditu herriguneko tren geltokian; 13:00etatik 17:00etara tunela pintatuko dute, fokuak jarri, proiektzioak egongo dira... Ondoren, Bilgune Feministak Trianguloan 19:00etan, egingo duten elkarretartzera joango dira, eta hori bukatzean Musika Eskolaren atzean dagoen tren geltokira bueltatuko dira ekitaldiekin jarraitzeko.
- **Leitza.** Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, gaur 11:15ean, informazio mahaia jarriko dute institutuan eta ondoren, elkarretaratzea egingo dute. Gaur 19:00etan ere Bilgune Feministak deitutako elkarretaratzea izango da Lopeneko biribilgunean. Bihar berriz, 12:00etan jarriko dute informazio mahaia heriko plazan.
- **Villabona.** Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta gaur, 20:00etan elkarretar-

tzea Berdura plazan, eta 21:00etan *Mis tardes con Margarita* erabilera anitzeko glan.

- **Irura.** Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta gaur, 12:00etan elkarretaratzea udaltxe aurrean; 17:30ean ludotekako guresoen gelan bideo proiektzioa, eta ondoren kafe tertulia; eta 17:30ean gaztelekuan konposaketa tailerra.
- **Ikaztegieta.** Udazkeneko kultur ekitaldien barruan gaur, 21:00etan euskal brigadisten Palestinako esperientzia hitzaldia udaltxeko areto nagusian. Bihar berriz, 09:30ean bisita gidatua egingo dute Ibiur urtegia eta Kutturuko Edateko Uraren Araztegia barrutik ezagutzeko.
- **Lizartza.** Kultur asteren barruan astelehenean 17:30ean, *Software libre. Ubuntu sistema eragilearen erabilpena* tailerra, liburutegian.
- **Tolosa.** Samaniego ikastetxeak *Erantzukizuna sustatuz seme-alabengan* pedagogi taileraren barruko bigarren hitzaldia astelehenean, Haur Hezkuntzako eraikinean 17:30ean.

TXOTXONGILOAK

- **Tolosa.** Titirirai jaialdiaren ba-

ruan bihar, 20:00etan Topic-en *Basura por ciruelas*. Igandean 17:00etan Leidorren *Zeheng He*; eta 16:30ean eta 18:00etan Topic-en *Barmbury*. Astelehenean 12:00etan eta 15:00etan Leidorren *Zeheng He*; 11:00etan, 14:30ean eta 18:00etan Topic-en *Krunk*; 10:30ean eta 15:00etan kultur etxean *Viajeros al tren*; eta 11:00etan eta 14:30ean Gorosabel auditorioan *Flor de lupin*.

MUSIKA

- **Tolosa.** Gaur Bonberenean 22:30ean Betagarri, eta bihar, ordu berean Bizardunak eta Caustic Roll Dave.

- **Tolosa.** Santa Mariako musika kaperaren emanaldia bihar 19:00eta, Santa Marian bertan.
- ZINEMA**
- **Tolosa.** Bihar Leidorren *Somewhere* 19:30ean, eta *La voz dormida* 22:30ean. Igandean ere *La voz dormida* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen eguna, *Somewhere* 20:30ean.
 - **Villabona.** Gurea zinemaren bihar, *La deuda* 19:30ean eta 22:15ean, eta astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean.
 - **Leitza.** *El árbol de la vida* gaur, 22:30ean, eta igandean 19:30ean.

AZAROAK 25
Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna

Tolosako Emakume Artistak HERRIA ERALDATZEN	Apezkoaren Ekintzak EGITARAILA
12:00-17:00	Nota eratu bat! Irakurri emakumeen literatura eta literatura emakumeen literatura
17:00-19:00	Irudi kontaketa Clowen Irudi kontaketa Elencogina maraia Irudi kontaketa Clowen
19:20-21:30	Irudi kontaketa Performance: Lurich

ANOETAKO UDALA

**Azaroak 25:
Indarkeria Sexistaren Aurkako Eguna**

Herriko plaza z/g • 943 651 200 • euskara@anoeta.net
www.anoeta.net

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008

TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

INKERNU

jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako moztorroak

Gernikako Arbola 1 behea • TOLOSA • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com

INKERNU

jantzigintza

- Diseinuak
- Eraldaketak
- Konponketak
- Artzain-andre jantziak
- Inauterietako moztorroak

Gernikako Arbola 1 behea • TOLOSA • 943 24 43 64 • elvinkernu@gmail.com